

Donostia, 2020ko urriaren 23a

## IDAZKARI NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, GASCA KIROLDEGIARI BURUZKOA

Marta Huarte Paño Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gasca kiroldegiari buruz batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Udal Gobernuak onartzen du, Gasca kiroldegiak dituen hezetasun arazoei dagokienez, estalkia ez dela arazo nagusia eta instalazioa osorik eraberritzea dela konponbide bakarra. Gure udal taldea ados dago erreforma integral horrekin; beraz, bada garaia erreforma horretarako epeei buruz hitz egiteko eta arazoen konponbidea ez atzeratzeko, kirol federatuko eta eskolako taldeen, talde profesionalen eta erabiltzaileen beren segurtasunerako.

Gainera, erreforma integral horretaz gain —ez dugu eperik oraindik horretarako—, estalkia ere konpondu behar da. Hain zuzen, azterketa tekniko bat egin behar da, itoginak nondik datozen eta arazoa noraino iristen den eta zenbateraino larria den jakiteko. Konponbidea ez da soilik orbela kentzea eta espero izatea euri askorik ez egitea, itoginen arazoa ez larriagotzeko.

Azterketa teknikoa eginda, jakin genezake, meteorologia alde batera utzita, arazoa ez ote datorren estalkiaren ingurunetik bertatik, aldameneko mendiko zuhaitzen kontra baitago. Hala, itoginak zergatik sortzen diren zehaztu ahal izango dugu.

Bestalde, kontraesankorra da horri buruz dugun informazioa, hau da, klubei beste toki bat eskaini zaiela, berriz ere ura iragazten bada ere, eta uste dugu Udal Gobernuak konpromiso sendoa hartu behar duela gai horren inguruan.

Udal gobernua utzikeriaz jarduten duenaren itxura ematen ari da irtenbide teknikoa duen arazo baten aurrean, eta badirudi konponbidea atzeratzen ari dela.

Horiek hala direla, hau da gure

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala azterketa tekniko oso bat Gascako itoginen egoerari buruz.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jar ditzala Gasca kiroldegia osorik berritzeko epeak.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskaini diezaiela beste toki bat klubei, itoginak eta ur iragazketak dauden bitartean.

Izpta.: Marta Huarte Paño

*Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea*